

## **AKORDIOAREN BATZORDE PAREKIDEAREN BILERA**

### **1.-Batzorde Parekidearen osaketa.**

Sei ordezkari sindikal (2 ELA, 1 CCOO, 1 STEE-EILAS, 1 LAB, 1 UGT) eta sei patronaletik (2 AICEkoak eta 4 KEkoak, eta Bizkaiko Elizbarrutiko Zentruak eta Ikasgiltza botorik gabe joango dira). Egoitza Bilbon egongo da eta araudi bat ezarriko da HIBMekoan oinarritutakoa (Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoa). Hau egiteke gelditzen da, baita Batzorde Parekidea, HIBM eta Lan Hitzarmena Negoziatzeko Mahaiaren arteko konpetentzia desberdinei buruzko irizpideena ere.

### **2.-Akordioa ezartzetik eratorritako alderdi praktikoak.**

Puntu honetan, zer edo zer argitu da baino gai asko zehaztu beharko dira.

-Gai batzuk ezin izango dira martxan jarri Lan Hitzarmena ofizialki berriro indarrean jarri arte. Hurrengo egunetik, kontratu berriak Euskadiko Lan Hitzarmenaren arabera egin beharko dira eta -dirudenez- ez da beharrezkoa izango aurrekoak aldatzea, erreferentzia estatalarekin. Nomina berriak Lan Hitzarmena indarrean jarri eta hurrengo hilabetetik aurrera egingo dira.

-Gai batzuk indarrean daude une honetan: baimenak, LE-k adierazten dituen 16 astei amatasun astea gehitzea barne... Lehenago aste hori disfrutatzea ukatu zitzaiententzat (2014ko uztailaren 8tik aurrera), sindikatuok neurri konpentsatzaileak arbitratzea eskatu dugu (aztertuko dute).

**-Borondatezko eszedentziak:** 2014ko uztailaren 8tik aurrera eskatutako guztiak Euskadiko Lan Hitzarmenaren babesarekin daude eta lanpostuaren erreserba dute (nahiz eta idatzizko eskaeran edo enpresaren erantzunean jarrita ez izan).

**-Lan-egutegia.** Mahai gainean ondoko proposamena dago: Lan Hitzarmena indarrean jartzen denetik aurrera marko berriari dagokion urteko lanaldiaren 1252 orduen zati proportzionala aplikatzea.

**-58 urtetik gorakoentzat ordu lektiboak gutxitzea.** Zentro bakoitzean negoziatu behar da ezarpena hiru aukeretatik abiatuz. Ikasturte honetan formula bat ezartzeko aukera eragozten duten egoerak badaude (adibidez,, murriztutako %25a osatzeko langile bat kontratatu den kasuetan, ikasturte erdian konpentsazio formula aldatzeak ez dirudi onargarria). 60 urte eta %25eko murrizketa izan dutenen egoera zehazteke gelditzen da.

**-Atzerapenak:** Lan-hitzarmena indarrean sartzen den unean, Hezkuntza-laguntzako espezialistak, TEJIak eta urtean 25000 € baino gutxiago ( Lanaldi osoan) irabazten dutenentzat 2009ko taulen arabera egindako murrizketa guztiak kobratuko dituzte, 2013ko uztailaren 8tik Lan Hitzarmena indarrean jarri artekoak.

-Bere lan-harremana bukatu zuten edo bukatuko dutenentzat zorraren kontua erabakitzeke gelditzen da. Beste galdera batzuk (Jarraitasun Saria, LEak, urte sabatikoak soldatari dagokionez), airean gelditzen dira.

### **3.-Enplegu eta birkokatzeakoari buruzko Akordioa.**

Gauza batzuk komentatzen dira; bilera espezifikoko baterako zain

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	✉ araba@stee-eilas.org
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	✉ bizkaia@stee-eilas.org
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	✉ gipuzkoa@stee-eilas.org
<b>NAFARROA:</b> Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	✉ nafarroa@stee-eilas.org